

Uso mezulariak milioi bat ekarri zion Rothschildi

WOLFGANG SAUBER



Ekzerrean, britainiarrek Frantziako tropak erasotzen, Waterlooko guduaren azken fasean (1815). Eskuinean, Nathan M. Rothschild (1777-1836), guduaren emaitzaren berri inork baino lehen jakitea ederki baliatu zuen bankaria.

WATERLOO (EGUNGO BELGIKA), 1815EKO EKAINAREN 18A. Igande hartan Wellingtongo Dukeak eta Gebhard von Blücherrek zuzentzen zuten Zazpigarren Koalizioak Napoleone Bonaparte buru zuen frantziar armada mendean hartu zuen.

Finantzari britainiarrek bazekiten gudu-zelaian asko zegoela jokoan, ez soilik politikaren aldetik, baita ekonomia-eraketik ere. Emaitzak arazo larriak ekarriko zizkien herrialde askori; beste batzuei, aldiz, bidea berdinduko zien. Britainia Handia guduan zuzenean nahasita zegoen, eta emaitzak britainiar bonuak izugarri igotzea ala behea jotzea eragingo zuen. Bide batez, guduak dirutza ekar diezaiokkeen emaitzaren berri beste inork baino lehenago lortzen zuenari.

Nathan Mayer Rothschild (1777-1836), Rothschildeko lehen baroia, bankari dinastia ezaguneko bigarren belaunaldiko kidea zen. Frankfurten jaio arren, Ingalaterran hasi zen negozioak egiten. 21 urte zituela Manchesterreko ehungintzan inbertitzen hasi zen. 1809an urrearen merkatuan sartu zen, eta 1815erako haren negozioak Europa osoan hedatuta zeuden. Nolabaiteko inteligentzia zerbitzu pribatua osatua zuen, hainbat agentez eta mezulariz osatutako sareari esker. Uso mezulariak ere zerbitzu haren parte ziren.

1811tik aurrera Rothschildek Wellingtonen agindupean zeuden tropak finantzatu zituen, Iberiar penintsulan Napoleonen aurka egin zituzten kanpainenetan –1813ko abuztuaren 31ko Donostiako sarraskiaren erantzukizunaren zatitxo bat bankariari egozteka zilegi litzateke, beraz—. Hala, ingeles tropek ez zieten inolako oztoporik jarri ongilearen trikimailuei. Haren zerbitzuko uso mezularietako bat gudu-zelaira bidali zuen, guduaren emaitza jakin bezain pronto mezua baroiari eraman diezaioten, baita hegaztiak misioa ederki bete ere.

Europako finantzari nagusien artean, Rothschild izan zen lehena Waterlooko guduaren emaitza jakiten. Frantziak galdu zuela jakitun, bere esku zeuden britainiar bonuak saltzen hasi zen. Gainerako bankariek ondorioztatu zuten Frantziak gudua irabazi zuelako hasi zela Rothschild bonuak saltzen, eta berehala gauza bera egiten hasi ziren. Bonuen prezioa nahikoa jaitsi zenean, Rothschild, benetako informazioa erabiliz, bonu merketuak erosten hasi zen. Frantziaren porrotaren berri zabaldu eta berehala, bonuak izugarri garestitu ziren. Operazio amarrutsu soil horretan milioi bat libera esterlina inguru irabazi zituen baroiak. ■




Arrastoak

Zorionak, uso batek kaka egin dizu

USO BATEK gainean kaka egiteak zorte ona omen dakar –ziurrenik, Rothschildi uso hark ekarri zionaren parekorik ez—. Sineskizunaren jatorriaren bila K.o 236. urteraino egin behar da atzera.

Maximino Trazio enperadoreak kristauen aurkako zapalkuntza gogortu zuen eta, Antero Aita Santua martirituta hilarazi zuenean, kristau komunitateak haren ondorengo aukeratzeko bildu behar izan zuen. Ia beti bezala, hainbat korronteren arteko eztabaida piztu zen, baina hautagai garbirik ez zegoen. Une horretan, lanetik zetorren nekazari bat zertan ari ziren ikustera hurbildu zen. Bat-batean, uso batek Fabian izeneko nekazariari gainean kaka egin omen zion, eta bildutakoek Espiritu Santuaren seinaleztat jo zuten. Fabian laikoa zenez, hantxe bertan apaiz, gotzain eta Aita Santu ordenatu zuten, beti ere Zesareako Eusebio historialariak *Historia Ecclesiae* lanean dioenaren arabera. Fabian 250eko urtarrilaren 20an hil zen arte egon zen karguan. ■



ANNE CLAY